

[Kontakizun gordin bezain zirrargarria: Frantziako erresistentziako bi kideri gertatutakoa haur baten begietatik ikusia.]

LORATEGI BELDURGARRIAK.

Michel Quint

Itzultzailea: Josu Zabaleta

2003

Erein

Nork bere burua ezagutzen omen du ondoen eta nor berak du, beraz, ahalmenik handiena intimitatearen baitan gordeak izaten ditugun sentimenduen berri emateko. Horra genero biografikoaren zentzua. Sentimendu horiek, gainera, gerraren izugarrikeriek eraginak badira, are gordinago ageriko zaizkigu zauriak. Eta halaxe mintzo zaigu Michel Quint haurra, bere aitarengandik higuina sentitzetik egundoko maitasuna eta mira sentitzera pasatzen den eleberri honetan. Ez da, alabaina, bizitza oso bat kontatuko, erresistentzia garaian izandako gertakari bat baizik, nahiz eta gertakari horixe izango den abiapuntu gerrak markatutako bizitza oso baten gainean gogoeta egiteko.

Haurra bera izango dugu historiaren kontalaria, harik eta osabak, aitak eta biek, II. Mundu Gerran Frantziako erresistentziako kide izan baitziren, alemanengandik jasotako izua eta izu horren aurrean mantendu zuten jarreraren berri ematen dion arte. Tarte horretan osabak beteko du kontalari eginkizuna. Orduantxe jabetuko da Michel Quint haurra aitaren zaletasunaren, pailazoz jantzi eta jendeari barre eragitekoaren arrazoiak. Defentsarako arma indartsua baita umorea, egoera gogorrenetan ere. Kontalari bikainak biak ala biak. Xehetasun guztiak dira garrantzitsuak eta modu trinko eta tarteka ironiaz betetako batez ematen digute kontalari biek haien berri. Ez da, ordea, idazketa telegrafiko bihurtzen, ez horixe. Haatik, ondo, tentu handiz ehundutako paragrafo luzetan emana dago orrialde kopurutan laburra den eleberri hau.

Trebezia berberaz ehunduta eman dizkigu Josu Zabaletak paragrafo horiexek euskaraz. Iduri du Zabaleta paragrafo bakoitza, esaldi bakoitza desegin eta parafrasien bidez hurbilketak eginez iritsi dela azken bertsio landu honetara. Bertsio landua, zinez, oso ondo jotzen duena, musika-jole on batek (itzultzaileak) bikain interpretaturiko musika konposatzaile on baten (Michel Quint-en) lana ((Lorategi Beldurgarriak) bezalaxe. Ez da ez, hartu eta besterik gabe egindako itzulpena. Askotan esanagatik egia biribila dena frogatzen digu bertsio honek: itzulpen ona jatorrizkotik behar bezain urrun eta ahal bezain hurbil mugitzen den huraxe da.

Eta merezi zuen. Merezi zuen, noski, honelako kontakizun zirraragarri eta benetakoak honelako itzulpen on bat.

Bere laburrean, bilakaera oso bat antzeman daiteke kontakizun honetako haur kontalariarengan. Gordin eta kupidarik gabe kritikatu du aita hasieran eta samur eta miresmenez maitatuko amaieran. Gorrotoak ez du lekurik, ezta osabaren kontaktetan ere. Umoreak betetzen du haren lekua, umoreak eta duintasunak.

Duintasuna, gerraren absurdotasuna, ulertu ezina, mina, maitasuna... horiek denek eta gehiagok dute lekua kontakizun honetan, baina, batez ere, galdera batek du lekua, pailazo zuri batek Maurice Papon-en auzian Bordeleko Justizia jauregian sartzen utzi ez zioten pailazo zuri hark egindako galderak:

-Egiarik ez bada, nola izan, bada, itxaropenik?

Oroimena errebindikatzen du Michel Quint-ek, ez errebantxarako, asko sufritu zuten pertsona maitatuei omen egiteko baizik: “Auzipetuaren izena? Ozta-ozta gogoratzen naiz oihartzun izugarri batez, mespretxuzko zaplada batez bezala, eta hori bera ere ahaztu nahi dut biharko, oroimenean berak bizitzatik deportatu zituenak baizik ez gordetzeko”.

Mikel Garmendia

